



FORU AGINDUA ORDEN FORAL

Irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretuak, Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzekoak, 23. artikuluan jasotzen duenez, departamentuetan borondatezko ordezkarien erroldak ezarri ahal izango dira. Errolda horien berariazko erregulazioaren ardura dena delako departamentuko foru diputatuari dagokio, horretarako foru agindua emanda.

COVID-19aren bilakaerak eragindako egoera dela eta, Diputatuen Kontseiluak 2020ko martxoaren 17an hartutako Erabakiaren bidez, Foru Administrazioaren funtzionamenduan eragina duten hainbat neurri onartu ziren. Foru erabaki horren 3. puntuaren arabera, murriztuta gelditzen dira aurrez aurreko zerbitzuak. Hori horrela, jendeari arreta emateko zerbitzu guztiak itxita daude, salbu Gipuzkoako Foru Aldundiko Jauregian kokatutako Herritarren Informazio eta Arretarako Bulego Zentrala.

Zerga arloko ordezkarien erroldaren kudeaketari dagokionez, Ogasun eta Finantza Departamentuko herritarren arretarako bulegoak ixteak berekin ekarri du ordezkatuak bere ordezkaritza aurrez aurre baimentzeko borondatea balioztatzea ezinezkoa izatea eta ordezkaritza balioztatzeko triangulazio sistemaren hasiera zaila izatea.

Egoera hori dela eta, gomendagarria da ezohiko sistema bat ezartzea, Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga arloko ordezkarien erroldan ordezkaritza berriak inskribatu ahal izateko. Ezohiko sistema hori 2020ko uztailaren 29ra bitartean baliagarria izango da.¹

Ezohiko sistema horretan, ordezkaritza emateko borondatea adierazteko ordezkatuaren aurrez aurreko agerraldia eta triangulazioa ordeztu dira, eta, horren orde, ordezkariak sinatutako erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da.

El artículo 23 del Decreto Foral 23/2010, de 28 de setiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral, prevé la existencia de censos de representación voluntaria departamentales, correspondiendo la regulación específica de estos censos departamentales a la diputada o diputado foral del departamento correspondiente mediante orden foral.

Ante la situación generada por la evolución del COVID-19, mediante acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 17 de marzo de 2020 se adoptaron diversas medias que afectan al funcionamiento de la Administración Foral. El punto tercero del mencionado acuerdo reduce los servicios presenciales de forma que todos los servicios de atención al público permanecen cerrados, salvo la Oficina Central de Información y Atención Ciudadana sita en el Palacio de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

En lo que respecta a la gestión del censo de representación en materia tributaria, el cierre de las oficinas de atención ciudadana del Departamento de Hacienda y Finanzas ha supuesto la imposibilidad de que la persona representada pueda validar su voluntad para otorgar la representación de forma presencial así como la dificultad de iniciar el sistema de triangulación para validar las representaciones.

Esta situación aconseja arbitrar un sistema extraordinario que permita inscribir nuevas representaciones en el censo de representación en materia tributaria del Departamento de Hacienda y Finanzas. Este sistema extraordinario tendrá validez temporal hasta el día 29 de julio de 2020.²

En este sistema extraordinario, se sustituyen la personación física de la representada y la triangulación para manifestar la voluntad de otorgar la representación por una declaración responsable firmada por la representante quien deberá, además, aportar como dato de

¹ Apirilaren 22ko 163/2020 Foru Aginduak aldatuta

² Modificado por Orden Foral 163/ 2020, de 22 de abril



Adierazpen horrek, gainera, kontraste-datu gisa, ordezkatuak ezagutzen duen datu bat aurkeztu beharko du, alde aurretik jakinarazi diona. Erantzukizunpeko adierazpena eta kontraste-datua emateko modua ordezkartzari alta emateko prozesu informatikoan sartuko dira, eta, horrela, bermatuko dira bai ordezkatatuen intimitatea baita horien datu pertsonaletarako sarbide egokia ere.

Horiek horrela, uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoko Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 40. artikuluan eta irailaren 28ko 23/2020 Foru Dekretuak, Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzekoak, 23. artikuluan emandako eskumenen arabera jakatuta, hau

E B A Z T E N D U T

Lehenengo. Xedea ³

Foru agindu honen xedea da Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga arloko ordezkarien erroldan ordezkartzat berriak inskribatzea ahalbidetzen duen ezohiko sistema bat arautzea, COVID-19ak sortutako aparteko goerak irauten duen bitartean.

Bigarren. Ordezkaritzaren edukiak eta indarraldia.

1. Ezohiko sistema honen bidez formalizatzen den ordezkartzak ordezkariari ahalmena emango dio azaroaren 5eko 582/2014 Foru Aginduak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga ordezkarien errolda arautzen duenak, 3. artikuluen 1. apartatuko 1. eta 2. edukietan jasotako jarduketak egin ditzan.

2. Ordezkaritzako ezohiko sistema hau 2020ko uztailaren 29ra bitartean izango da erabilgarri. Izan ere, data horretan sistema honen bidez baimendurako ordezkartzat guztiek indarraldia

kontraste un dato conocido por la representada que se lo habrá comunicado previamente. Tanto la declaración responsable como la forma de aportar el dato de contraste se incorporarán en el proceso informático de alta de la representación y, de esta forma, se garantizan la intimidad y correcto acceso a datos personales de las representadas.

Por lo expuesto, actuando conforme a las competencias conferidas por el artículo 40 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y el artículo 23 del Decreto Foral 23/2010, de 28 de setiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral,

R E S U E L V O

Primero. Objeto ⁴

La presente Orden Foral tiene por objeto regular un sistema extraordinario que permita inscribir nuevas representaciones en el censo de representación en materia tributaria del Departamento de Hacienda y Finanzas, durante el periodo de tiempo en el que se mantenga la situación excepcional generada por el COVID-19.

Segundo. Contenidos y vigencia de la representación.

1. Las representaciones que se formalicen mediante este sistema extraordinario únicamente facultarán a la persona representante para la realización de las actuaciones comprendidas en los contenidos 1 y 2 señalados en el apartado 1 del artículo 3 de la Orden Foral 582/2014, de 5 de noviembre, por la que se regula el censo de representación en materia tributaria del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

2. Este sistema extraordinario de representación se mantendrá disponible hasta el día 29 de julio de 2020. En esa fecha todas las representaciones otorgadas mediante este

³ Apirilaren 22ko 163/2020 Foru Aginduak aldatuta

⁴ Modificado por Orden Foral 163/ 2020, de 22 de abril



galduko dute.

3. Indarraldiaren mugaeguna iritsita, ordezkaritza horiek eraginkortasuna galduko dute, eta, ordezkaritza horiek gorde nahi izanez gero, ordezkaritza berri bat izapidetu beharko da 582/2014 Foru Aginduan jasotakoari jarraituz. Era berean, beharrezkoa izango da ohiko ordezkaritza bat baimentzea, bestelako ahalmenak edo adierazitakoa baino luzeagoa den indarraldia duten ordezkaritzak emateko.

Hirugarren. Zerga arloko ordezkaritza ezohiko sistemaren bidez inskribatzea.

1. Ezohiko ordezkaritza hauei alta ematea eskatzeko, azaroaren 5eko 582/2014 Foru Aginduak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga ordezkarien errolda arautzen duenak, 4. artikuluan jasotako moduan jokatu da, betiere salbuespen hauek eginda:

a. Ordezkaritzaren edukiak aukeratzean, 1. eta 2. edukiak bakarrik agertuko dira markatuta.

b. Defektuz, indarraldiaren mugaeguna 2020ko uztailaren 29a izango da.

c.⁵ Aurrez aurreko agerraldiaren eta triangulazioaren sistemen ordezkari, kontraste datuaren sistema ezartzen da. Zehazki, kontraste datu hauek erabiliko dira:

Pertsona fisikoak: azken lau ekitaldietan Gipuzkoan aurkeztutako azken errenta aitortuaren adierazita dagoen ordaintzeko edo itzultzeko kopuruaren zenbatekoa.

Pertsona juridikoak: entitatearen arabera ondoren adierazten den laukian agertzen den zenbatekoa, betiere, azken lau ekitaldietan Gipuzkoan aurkeztutako azken 200 ereduaren jasotakoa:

Estatuko araudiaren menpe dauden entitateak: 550 laukian agertzen den

sistema perderán su vigencia.

3. A la llegada de la fecha límite de vigencia, estas representaciones dejarán de estar operativas y, de continuar el interés en mantener dichas representaciones, deberá tramitarse una nueva representación de conformidad con lo dispuesto en la citada Orden Foral 582/2014. De igual modo, será necesario otorgar una representación ordinaria para poder ejercitar otro tipo de facultades o con una vigencia superior a la señalada.

Tercero. Inscripción de la representación tributaria mediante el sistema extraordinario.

1. Las solicitudes de alta de estas representaciones extraordinarias se realizarán en la forma prevista en el artículo 4 de la Orden Foral 582/2014, de 5 de noviembre, por la que se regula el censo de representación en materia tributaria del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa, con las siguientes excepciones:

a. A la hora de elegir los contenidos de la representación únicamente aparecerán marcados los contenidos 1 y 2.

b. El plazo de vigencia por defecto será el 29 de julio de 2020.

c.⁶ Se sustituyen los sistemas de personación y triangulación por el dato de contraste. En concreto, se utilizarán estos datos de contraste:

Para las personas físicas, el importe de la cantidad a ingresar o a devolver de la última declaración del impuesto sobre la renta de las personas físicas presentada en Gipuzkoa dentro de los últimos cuatro ejercicios inmediatos.

Para las personas jurídicas, el importe que figure en la casilla que se señala a continuación en función de la entidad, referido, en todo caso, al último modelo 200 presentado en Gipuzkoa dentro de los últimos cuatro ejercicios inmediatos:

Entidades sujetas a la normativa estatal: el importe que figure en la casilla 550 ("Base

⁵ Apirilaren 22ko 163/2020 Foru Aginduak aldatuta

⁶ Modificado por Orden Foral 163/ 2020, de 22 de abril



zenbatekoa ("Aurreko ekitaldietako zerga oinarri negatiboen konpentsazioaren aurreko zerga oinarria").

Itsas garraioa enpresen tributazio araubidean dauden itsasotzi konpainiak: 1503 laukian agertzen den zenbatekoa ("Zerga oinarria / Oinarri likidagarria")

Ondare sozietateak: 4238 laukian agertzen den zenbatekoa ("Aurreko zerga oinarria")

Gainerako entitateak: 1504 laukian agertzen den zenbatekoa ("Aurreko zerga oinarria").»

d. Ordezkaritza eskaerarekin batera, alta emateko prozesu informatikoan gehitzen den erantzukizunpeko adierazpena sinatu beharko du ordezkariak, baita ordezkatuak emandako kontraste datua eman ere.

2. Ordezkatuak ordezkari-tza emateko borondatea adierazteko aurreko puntuan aipatutako kontraste datua erabiliko da.

3. Ogasun eta Finantza Departamentuak alta eskaeran jasotako datuak eta ordezkariak aurkeztutako dokumentazioa egiaztatuko ditu, eta, zuzenak badira, ordezkari-tzari alta emango zaio besterik gabe. Inkongruentziarik badago edo datuak okerrak badira, errefusatu egingo da eskaera.

Laugarren.- Azaroaren 5eko 582/2014 Foru Aginduak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga ordezkarien errolda arautzen duenak, jasotako ordezkari-tzen baimenerako sistemak jarraitzea.

COVID-19aren gaitzak sortutako aparteko egoerak irauten duen bitartean, zerga arloko ordezkari-tzen altak izapidetzen jarraitu ahal izango da, betiere azaroaren 5eko 582/2014 Foru Aginduak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga ordezkarien errolda arautzen duenak, jasotzen duen moduan. Dena den, herritarren arretarako bulegoak itxita dauden bitartean, ezin izango da aurrez aurreko agerraldia erabili ordezkari-tza baimentzeko borondatea adieraztearren; triangulazioari hasiera emateko, berriz, ordezkatuaren jatorrizko

imponible antes de compensación de bases imponibles negativas").

Entidades navieras en régimen de tributación de las empresas de transporte marítimo: el importe que figure en la casilla 1503 ("Base imponible / Base liquidable").

Sociedades patrimoniales: el importe que figure en la casilla 4238 "Base imponible previa").

Resto de entidades: el importe que figure en la casilla 1504 ("Base Imponible previa").»

d. La persona representante, junto con la solicitud de representación, deberá firmar la declaración responsable incorporada en el proceso informático de alta de la representación, así como aportar el dato de contraste facilitado por la representada.

2. La manifestación de la voluntad de la persona representada para otorgar la representación se realizará mediante el dato de contraste citado en el punto anterior.

3. El Departamento de Hacienda y Finanzas comprobará los datos consignados en la solicitud de alta y la documentación aportada por la representante y, en caso de resultar correctos, se dará de alta la representación sin más trámites. En caso de que existan incongruencias o que los datos no sean correctos, se rechazará la solicitud.

Cuarto.- Subsistencia del sistema para otorgar representaciones de la Orden Foral 582/2014, de 5 de noviembre, por la que se regula el censo de representación en materia tributaria del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Mientras subsista la situación excepcional generada por el COVID-19 podrán seguir tramitándose altas de representaciones tributarias en la forma prevista en la Orden Foral 582/2014, de 5 de noviembre, por la que se regula el censo de representación en materia tributaria del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa, si bien, mientras las oficinas de atención ciudadana del Departamento permanezcan cerradas no podrá utilizarse la personación física de la representada para manifestar su voluntad de otorgar la



eskuzko sinadura duen 001 edo 001-P agiria
posta arruntez bidali beharko da.

Bosgarren.- Indarrean jartzea.

Foru agindu hau Gipuzkoako Aldizkari
Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko
da indarrean.

representación, y para iniciar la triangulación,
el documento 001 o 001-P con la firma
manuscrita original de la representada deberá
remitirse por correo postal.

Quinto.- Entrada en vigor.

La presente Orden Foral entrará en vigor el
mismo día de su publicación en el Boletín
Oficial de Gipuzkoa.